

EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKEN OINARRIAK

2018-2019 ikasturtea

Oiartzungo Udala



EUSKARA ZERBITZUA

Diru-laguntzaren xedea

Euskara Zerbitzuak euskara ikasteko diru-laguntza **OROKORRAK** ematen dizkie euskara ikasten ari diren oiartzuar guztiei. Baldintza orokorrak betetzen dituzten ikasleei matrikularen %50 itzuliko zaie.

Euskara Zerbitzuak euskara ikasteko diru-laguntza **GEHIGARRIAK** ematen dizkie egoera jakin batzuetan dauden herritarrei. Oinarri hauetan jasotzen diren baldintza zehatzak betetzen dituztela ziurtatzen dituzten ikasleei guztira matrikularen %70 itzuliko zaie.

Langabetuen eta pentsiodunen kasuan, ondorengo taularen arabera jasoko da laguntza:

Langabezia 2<4 hilabete: %55

Langabezia 4<6 hilabete: %60

Langabezia 6< hilabete: %70

Dirulaguntza jasotzeko baldintzak

Baldintza orokorrak:

- Oiartzunen erroldatuta egotea ikastaroak irauten duen bitartean. Kasu hauetan izan ezik: Oiartzungo dendatako langileak, Oiartzungo zerbitzu enpresatako langileak, Oiartzunen jarduten duten eta euskara plana duten edota Oiartzungo Udalarekin hitzarmena duten enpresetako langileak, Oiartzunen jarduten duten elkarteetako kideak.
- Goi mailako ikastaroak (11 eta 12 urratsak), EGA eta alfabetatze ikastaroak gutxienez 120 ordukoak izatea.
- Barnetegien kasuan, egoitza eta garraioa ordaintzeko gastuaren % 20ko laguntza emango da gehienez
- Hasitako ikastaroa amaitzea. Amaitu ez den kasuetan, izandako asistentzia agiriaren eta aprobetxamenduaren txostenaren arabera diru-laguntza proportzionala emango da.
- Eskatutako ikastarorako gain-finantzaketa eragin dezakeen beste diru-laguntzarik jaso ez izana. Horretarako eskatu diren eta onartu zaizkion diru-laguntzei buruzko zinpeko aitortpena eskatuko da. Bestelako agiri argigarriak ere eskatu ahal izango dira.
- Asistentziak gutxienez %85ekoa izan beharko du. Gaixotasun-egiaztagiriak baino ez dira onartuko hutsegiteak zuzitzeko.
- Laguntza hauek jaso nahi dituen herritarrak Oiartzungo euskaltegi homologatu batean izena eman behar du. Oiartzungo eskaintzaren arabera ikasleak eskatutako urrats eta ordutegian talderik sortu ez bada, beste herriren bateko Euskaltegi homologatu batean aritu izana onartuko da diru-laguntza emateko orduan.
- Ikasturte amaieran, euskaltegiek bidalitako txostenak aztertuko dira. Asistentzia, aprobetxamendua eta gainerako baldintzak bete baldin baditu, Oiartzungo Udalak dagokion diru-laguntza esleituko dio ikasleari.
- Oinarrietako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei diru-laguntza emateko nahikoa aurrekontu-krediturik ez badago, hainbanaketa bidez esleituko da diru-laguntza eskabide guztien artean, inongo lehentasun-ordenarik gabe.

EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKEN OINARRIAK

2018-2019 ikasturtea

Oiartzungo Udala



EUSKARA ZERBITZUA

Euskara ikasteko diru-laguntza GEHIGARRIAK

Baldintza zehatzak:

- Hezkuntza arautuko ikasketaren batean aritzea.
- Langabe edo pentsioduna izatea.
- Famili transmissioko programaren bidez, 12 urte bitarteko haurren guraso, hezitzaile eta zaintzaileek, pediatra eta gainerako profesionalak eta haurdun dauden emakumeek eta hauen bikoteek jasoko dute diru-laguntza.
- Oiartzungo elkarteetako zuzendari, monitore edo idazkari izatea. Beharrezkoa izango da Elkarte Oiartzunen egotea edo iraunkorki Oiartzunen jardutea.
- Oiartzungo dendetako langile izatea. Enpresa Oiartzunen egotea edo iraunkorki Oiartzunen jardutea beharrezkoa izango da.
- Oiartzungo zerbitzu-enpresetako (banku, aseguru-etxe,...) langile izatea. Enpresa Oiartzunen egotea edo iraunkorki Oiartzunen jardutea beharrezkoa izango da.
- Lan Munduko euskararen normalizaziorako plana duten enpresetako langile izatea edota Oiartzungo Udalarekin hitzarmena duen enpresa batetako langile izatea. Beharrezkoa izango da enpresa Oiartzunen egotea edo iraunkorki Oiartzunen jardutea.

EPEAK

Eskabideen aurkezpena

Neguko ikastaroak: 2019ko ekainaren 17tik uztailaren 5era

Uda ikastaroak: 2018ko urriaren 1etik 18ra

Orduetgia: 8:00-14:30

Lekua: Oiartzungo udaleko ERREGISTROA

Prozedura

- Eskaerak ezarritako epean jasoko dira.
- Euskara zerbitzuak eskaerak aztertu eta txostena egin ondoren, Euskara Batzordeak bere irizpena emango du.
- Alkateak Dekretuz ebatziko ditu diru-laguntzaren onuradunak eta hauek jasoko dituzten zenbatekoak.
- Hartutako erabakia jakinarazi eta legeak ezarritako epeen barruan egin ahal izango dira erreklamazioak.

Aurkeztu beharreko DOKUMENTAZIOA

- Ondoren adierazten diren dokumentuez gain, Udalak egoki jotzen dituen beste agiri batzuk ere eskatu ahal izango ditu.



Eskatzaile guztiek aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskabide-inprimakia, behar bezala beteta
- Errolda ziurtagiria (dagokien kasuetan)
- Nortasun Agiriaren fotokopia
- Euskaltegiaren ziurtagiria
- Matrikularen ordainagiriak
- Eskatutako ikastarorako gain-finantzaketa eragin dezakeen beste diru-laguntzarik jaso ez izanaren zinpeko aitortpena

Horiez gain, kasuaren arabera:

Ikasleak

- Ikastetxeko matrikularen agiria (ordainagiria edo matrikula-agiriaren kopia)

Langabetuak eta pentsiodunak

- Gizarte Segurantzak (Zurriola Etorbidea 12, Gros) ematen duen lan-bizitza ziurtagiria. Ziurtagiri honek ikastaroak iraun duen bitartean langabezia zenbat hilabetez egon den egiaztatu beharko du.

Pentsiodunen kasuan, egoera hori egiaztatzen duen agiria.

Familia Transmisioa: guraso eta zaintzaileak, pediatrak,...

- Haurren datuak azaltzen dituen familia liburuaren fotokopia.

- Familiaren ziurtagiria (zaintzaileek).

- Haurdun dauden emakumeek eta haien bikoteek medikuaren ziurtagiria (beharrezkoa denetan, zinpeko aitortpena eskatu ahal izango da).

- Gutxienez sei hilabetez lanean ari izana egiaztatzen duen Gizarte Segurantzaren (Zurriola Etorbidea 12, Gros) lan-bizitza ziurtagiria (pediatra eta gainerako profesionalak).

Oiartzunen kokatutako denda eta zerbitzu enpresetako langileak

- Gutxienez sei hilabetez lanean aritu izana egiaztatzen duen ziurtagiria.

- Enpresa Oiartzunen kokatua dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria. Hala badagokio, iraunkorki Oiartzunen jarduten duela adierazten duen ziurtagiria.

Lan Munduko euskararen normalizaziorako plana duten enpresetako langileak

- Gutxienez sei hilabetez lanean aritu izana egiaztatzen duen ziurtagiria.

- Enpresa Oiartzunen kokatua dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria. Hala badagokio, iraunkorki Oiartzunen jarduten duela adierazten duen ziurtagiria.

- Enpresak Euskara normalizatzeko plana martxan duela adierazten duen agiria.

- Oiartzungo Udalarekin hitzarmena duten enpresen kasuan, udalak egiaztatuko du hitzarmena indarrean dela.

EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKEN OINARRIAK

2018-2019 ikasturtea

Oiartzungo Udala



EUSKARA ZERBITZUA

Elkartekak

- Elkartearen egiaztatzea, eskatzaileak bertan zein eginkizun duen adierazten duena.
- Elkartea Oiartzunen kokatua dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria. Hala badagokio, iraunkorki Oiartzunen jarduten duela adierazten duen ziurtagiria.

Oiartzungo Euskaltegi homologatu batean ikasten duten ikasleentzako ordainketa-sistema

Xedea:

Euskara ikasteko beka dagokien Intxixu AEK euskaltegiko ikasleek, edo hala balego, Oiartzungo beste euskaltegi homologatuetako ikasleek, matrikula osoa irailean ordaindu behar izan ez dezaten, Oiartzungo Udalak hauen matrikularen erdiaren ordainketa hartuko du bere gain.

klausula honek ez ditu aldatzen beka jasotzeko 2008an onartutako baldintzak. Ordainketa modua da aldatzen duen bakarra.

Eskaera:

Intxixu AEK euskaltegia kudeatzen duen Euskaraz Kooperatiba Elkarteko arduradunek, edo hala balego, Oiartzungo beste euskaltegi homologatuetako arduradunek, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dituzte ikasturte hasieran eskaerarekin batera:

- Beka dagokien ikasleen zerrenda, zenbateko beka dagokien zehaztuta (% 50eko beka orokorra edo % 70 arteko diru-laguntza gehigarria dagokien, alegia).
- % 70a arteko diru-laguntza gehigarria jaso dezaketen ikasleen kasuan, egoera hau egiaztatzen duen agiria (familia transmisioa, lan mundua, langabetu edo ikaslea...)
- Errolda agiriri dagokionez, euskaltegiak ez du ikasleen ziurtagiririk aurkeztuko. Udala arduratuko da ikasleak errolatuta dauden ziurtatzeaz.

Prozedura:

- Euskaltegiak eskaera egingo du azaroaren 5a baino lehen Oiartzungo Udaleko erregistro orokorrean.
- Euskara Zerbitzuan eskaerak aztertu eta urriaren amaierako batzordean Euskaraz Koopera Elkarteari ordaindu beharreko kopurua zehaztuko da.
- Ordainketa hiru zatitan gauzatuko da: 1/3 abenduan, 1/3 otsailean eta 1/3 maiatzean, Euskaltegiaren zati bakoitzeko faktura jaso ondoren

% 70 arteko diru-laguntza gehigarria jaso dezaketen ikasleek dagokien gainerako kopurua jasotzea:

Ikasturte amaieran, oinarrietan zehaztutako datetan, Intxixu AEK euskaltegia kudeatzen duen Euskaraz Kooperatiba Elkarteko arduradunek, edo hala balego, Oiartzungo beste euskaltegi homologatuetako arduradunek, ikasle bakoitzaren asistentziaren datuak aurkeztuko dituzte eta hala badagokio, beharrezkoak diren gainerako datu eta dokumentuak (bizitza laborala, kontratuak, amatasun agiriak ...). Diru-laguntza gehigarriak Intxixu AEK Euskaltegian, edo hala balego, Oiartzungo beste euskaltegi homologatuetan, ikasi ez duten gainerako ikasleekin batera onartuko dira uztailean.

Asistentzia ez betetzearen ondorioa:

Ikasturte hasieran beka eskatu bai, baina gutxieneko asistentzia bete ez dutenek, ezingo dute datozen 4 ikasturteetan bekarik eskatu.

Udalak aurreratutako diru-kopurua itzuliz gero, 4 urtetarako ezarritako beka eskatzeko debekua indargabetuko da.

Udalak gehienez bi alditan bidaliko dio ikasleari, diru-itzulketa egiteko epearen jakinarazpena.

Diru-itzulketa irailaren 30a baino lehen egin beharko da.